

## INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNeko ADIERAZPENA

BESTE BEHIN ERE DENOK ELKARREKIN INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNEAN TRATU ONA GUZTIONA ALDARRIKATZEN GAITUZUE: HERRI ESKOLA, ZUMAIKO INSTITUTUA, ZUMAIENA, OIKIAKO ESKOLA, SOLDADURAKO ZENTROA ETA ZUMAIKO UDALA.

Azaroaren 25a indarkeria matxistaren kontrako eguna da nazioartean. Euskal Herriko eta munduko kaleak berriro beteko dira gaur arazo honi aurre egiteko, bizi dugun egoera oraindik larria da-eta.

Gaur, azaroak 25, kalean bilduta, Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orioko hezkuntza-komunitateko kide guztiok eta udalen ordezkariok gizartearen aurrean berriz adierazi nahi dugu ez dugula indarkeria matxista onartzen eta guztiz gaitzesten dugula.

Ezin dugu isilik geratu injustiziaren aurrean; ezin dugu indarkeria matxista onartu. Gizarte parekidea eta justua nahi dugu eta hori aldarrikatzen dugu gaur, ozen, kalean, eskolan, etxean eta lagunartean.

Emakume askok egunero pairatzen du injustizia eta bazterkeria lan-munduan, gizartean eta etxean. Emakume askok ez du bizi parekidetasuna, lasaitasuna eta askatasuna. Baina guk aurre egingo diogu egoera horri!

Asko dira indarkeria matxistak eragindako biktimak, baita gure inguru hurbilean ere. Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orioko hezkuntza-komunitateko kideok berekin gaitzuztela esan nahi diegu emakume horiei guztiei.

Emakumeek sufritzen dituzten giza eskubideen urraketa larrien aurrean, guk aldarrikatu nahi dugu tratu onetan oinarritutako gizarte baten aldeko apustua egiten dugula.

Gure gizartetik jazarpeneko jarrerak betiko desagertzeko eta tratu onetan oinarritutako bizitza eraikitzeko, parekidetasuna landu behar dugu esparru guztietan: eskolan, etxean, kalean...

Aurreko guztiaren argitan, gure herrietako hezkuntza-komunitatea osatzen dugunok, ikastetxeak eta udalek, KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITUGU:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskola guztietan hezkidetzak lantzeko eta tratu onak sustatzeko, pertsonengan oinarritutako hezkuntzaren alde egiteko eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea gauzatzeko.
- Konpromisoa hartzen dugu pertsona guztiak errespetuz eta elkartasunez tratatzeko, guztiok daukagu-eta eskubidea aske eta lasai bizitzeko, errespetuak izateko eta aukera-berdintasuna gozatzeko.
- Konpromisoa hartzen dugu gure herriak hezkidetzaren balioetan oinarrituta eraikitzeko eta tratu onetan sustraitutako kultura, gizarte, ekonomia eta herrigintza garatzeko.
- Konpromisoa hartzen dugu, egunero-egunero, herriko gune eta ekintza guztietan hezkidetzak eta bizikidetzak sustatzeko, arautzeko eta betearazteko; eta, horren bidez, gizarteak eraldatzen laguntzeko.

Guztiok elkarrekin badugu zer egin eta zer eraiki: bakoitzak bere esparruan eta guztiok batera, hitzez eta ekintzez eraikiko dugu tratu onean oinarritutako gizartea. Bat eginik eta elkarrekin. Izan ere, tratu ona guztiona da.

Zumaia, 2022ko azaroaren 25a.